# POLITIKA PEDAGOGIKOA[1]

Hainbat printzipio eta irizpide ditu gure politika pedagogikoak, eta guztiak hartu behar dira aintzat EGIBIDEren hezkuntza-jardueran, zeinaren helburua baita **gizon-emakume jantziak, trebeak, errukiorrak eta konprometituak heztea,** eta haiek gizaki gisara erabat garatzea.

Printzipio eta irizpide horien xedea hau da:

a. Gure ikastetxeen kristau izaera bermatzea.

b. Bikaintasun akademikoa eta kalitateko hezkuntza lortzea ikasle guztientzat.

c. Hezkuntza-komunitate gisara eratzea EGIBIDE.

### Pedagogia-eredu bat gizaki-profil jakin baterako

Pedagogia-eredu jakin bat behar da ezaugarri horiek dituen jendea hezteko, eta gizon-emakumeen, heziketa-prozesuen eta egituren muineraino txertatu behar da, handik abiatuta azala ere aldatzeko. Ez gara estrategia jakin batez ari, esparru batez baizik.

Pedagogiaz baliatzen dira irakasleak ikasleen hezkuntza eta garapena sustatzeko. Pedagogiak (ikasteko artea eta zientzia), ordea, ez du metodologia hutsa izan behar: munduaren ikuspegi jakin bat ere eskaini behar du, baita hezi beharreko gizaki idealaren ikuspegi bat ere. Hezkuntza-tradizio baten alderdi guztien helburua eta xedea non diren jakiten laguntzen digu horrek, eta hezkuntza-prozesuan erabili behar diren baliabideak hautatzen.

Pedagogia-eredu edo –estilo hori eratzeko, 70 urtez jaso ditugu gure hezkuntza-tradizioko elementu baliagarriak. Gizartearen aldaketetara egokituz joan da gure eredua, eta, horrenbestez, berritzaileak iruditzen zaizkigu –agian– zenbait proposamen pedagogiko.

### Gure eredu pedagogikoaren euskarriak

Gizaki osoaren humanizazio-prozesu bat da hezkuntza, bizi den mundu horri zerbitzatzeko eta hura hobetzeko gai izan dadin. Iraganeko gure ikaskuntza-esperientzia sendoenetako batzuk gogoratuz eta haietatik abiatuta eraikiz, azpimarra dezagun, lehenbizi, ***testuinguru*** baten premia. Seguru sentitu behar du ikasleak testuinguru horretan; konfiantza izan behar du irakaslearekin, eta harekin elkarlanean jardun. Bestalde, norberaren alderdirik onenak kanporatzen lagundu

[1] EGIBIDEko jarduerek eta erabakiek behar dituzten erreferentziazko jarduera-filosofiak, printzipioak eta irizpideak dira politika orokorrak. Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioaren estatutuetan jasotako helburuak eta EGIBIDEren izaera propioa, xedeak eta balioak dituzte sorburu. Hainbat politika ditugu: Antolakuntzakoak, Pedagogikoak, Pertsonei buruzkoak, Ekonomikoa, Ingurumenaren alorrekoa, Komunikaziokoa, Linguistikoa…

# POLÍTICA PEDAGÓGICA[1]

Esta política general está constituida por principios y directrices que han de estar presentes en la acción educativa de EGIBIDE, encaminada a **educar personas conscientes, competentes, compasivas y comprometidas** y a su pleno desarrollo como personas.

Dichos principios y directrices responderán a:

a. El carácter cristiano del centro.

b. Conseguir la excelencia académica y la educación de calidad para todos los alumnos-as.

c. La configuración de EGIBIDE como Comunidad Educativa.

### Un estilo pedagógico para un perfil de persona

Formar personas con las características citadas supone un estilo pedagógico determinado. Ese estilo pedagógico ha de entrar en la trastienda de las personas, de los procesos educativos y de las estructuras, para desde ahí poder transformar las fachadas de todas ellas. No se trata de una estrategia concreta, sino de un marco.

La pedagogía es el camino por el que los educadores acompañan a las alumnas y alumnos en su crecimiento y desarrollo. La pedagogía, arte y ciencia de aprender no puede reducirse simplemente a una metodología. Debe incluir una perspectiva del mundo y una visión de la persona humana ideal que se pretende formar. Esto indica el objetivo y el fin hacia el que se dirigen los diversos aspectos de una tradición educativa. Proporcionan también los criterios para elegir los recursos que han de usarse en el proceso de la educación.

Para constituir ese estilo pedagógico hemos recogido elementos valiosos de nuestra tradición educativa durante los 70 años de existencia, que ha ido adaptándose a los cambios sociales, de manera que quizá nos resultan hoy en día como propuestas pedagógicas novedosas.

### Soportes de nuestro estilo pedagógico

Educar es un proceso de humanización de la persona entera para capacitarse en el servicio y mejora del mundo en el que vive. Rememorando alguna de nuestras más sólidas experiencias de aprendizaje en el pasado y construyendo a partir de ella, recordaríamos la necesidad de un ***contexto***

[1] Las políticas generales son filosofías de actuación, principios y directrices generales que establecen el marco de referencia para las actividades y la toma de decisiones en EGIBIDE. Estas políticas emanan de los Fines Fundacionales recogidos en los Estatutos de la Fundación Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa y del Carácter Propio y la Misión, Visión y Valores de EGIBIDE. Hay distintos tipos de políticas: Organizacional, Pedagógica, Personas, Económica, Ambiental, Calidad, Comunicación, Lingüística, etc.

behar du testuinguruak. Gogoan izan, bestetik, esperimentazioak ere hobeto ikasten laguntzen duela; hau da, garrantzitsua dela ***esperientzia,*** bai ikaslearen buruak gogoratzen duen hori, bai haren ahalmen guztiek (gorputzarenak, sormenarenak, intuizioarenak, afektiboak, sozialak eta espiritualak) bideratzen dutenarena; beste hitz batzuekin esanda, bihotzak dioenarena. Baina eskarmentu edo esperientzia hutsak ere ez digu, berez, ikasarazten: ikasitako horrek norberaren bizitzan duen eraginari buruz ***gogoeta*** egin behar dugu. Gogoetak, berriz, ***ekintza*** ekarri behar du: ikasketei ardura eta gogo handiagoz ekitea, norberaren buruarekin eta besteekin errukiorrago jardutea, errespetu handiagoa izadiarekiko, konpromiso handiagoa gizartearen arazoei aurre egiteko… Azkenik, ikaskuntza-prozesuaren ***ebaluazioak*** lagundu egiten digu ikasitakoa finkatzen eta hartaz hobeto ohartzen[2].

Komunitate-giroan egin behar da gizaki osoaren humanizazio-prozesu hori. Ikasleek, irakasleek, familiek, EGIBIDEko hezkuntza-proiektuko eragile guztiok erreferentzia-komunitate horretako partaide ere izan behar dugu. Ziur gara, izan ere, eraginkorragoa dela hezkuntza campus guztietan batera jardunda, eginkizun eta lan desberdinekin bada ere. **Hezkuntza-komunitate** izateko, ordea, komunitate horretako partaide sentitu behar dugu; ikasteko edo lan egiteko lekutzat ez ezik, gure izaera hobetzeko eta gizaki gisara, herritar gisara eta, zergatik ez, sinestun gisara elkarrekin hezteko tokitzat ere sentitu behar dugu EGIBIDE[3].

Lau ezaugarri hauek ditu oinarri gure **hezkuntza-ereduak:**

1. **Hezkuntza pertsonalizatua**, gizaki bakoitza eta haren duintasuna aintzat hartzen dituena, dagokien aniztasunaren barruan betiere. Horrez gain, orientabidezkoa da gure eredua.
   a. Hurbiltasunez eta banan-banan laguntzen diegu gure ikasleei eta eskaintzen diegu arreta beren garapen-alor guztietan, eta ikasgelatik eta taldetik harago joan ohi da gure tutoretza-lana.
   b. Gizaki bakoitzaren garapen ahalik eta osoena sustatzen dugu, ikaskuntzarako eta hazkuntza pertsonalerako motibazioa eskainiz, eta ikasleen lankidetza eta partaidetza bultzatzen dugu haien hezkuntza-prozesuan.
   c. Ikasleen aniztasuna kontuan hartzen dugu, haien egoera pertsonalen, familiarren eta sozialen, ahalmenen, interesen eta ikaskuntza-erritmoen arabera.
   d. Ikasleen autonomia bultzatzen dugu, jarduerak prestatu, antolatu eta programatu ditzaten, eta hezkuntza-komunitate osoak proposatzen duenari zabalik egoteko jarrera sustatzen haiengan.

[2] *EGIBIDEren izaera propioa,* 18. zk.

[3] *EGIBIDEren izaera propioa,* 14. zk.

en el que nos sintiésemos seguros, en el que la relación con el educador o la educadora fuese confiada y colaborativa, y en el que percibiésemos una exigencia que nos hiciese sacar lo mejor de cada cual. También recordaríamos que se aprende mejor de lo que se experimenta, la ***experiencia*** que no solo surge de lo que pasa por la cabeza sino de lo que pone en juego nuestras capacidades corporales, creativas, intuitivas, afectivas, sociales y espirituales. En otras palabras, lo que de una u otra manera pasa por el corazón. Caeríamos en la cuenta igualmente de que la experiencia por sí sola no nos hace aprender, que necesita la ***reflexión*** sobre el significado de lo aprendido para la propia vida, una reflexión que derive en una ***acción:*** una aproximación más consciente y responsable hacia los estudios, un comportamiento más compasivo hacia uno mismo y hacia los demás, un mayor respeto hacia la creación, una postura más comprometida ante los problemas sociales. Y, por último, nos acordaríamos de cómo la ***evaluación*** del proceso de aprendizaje ayuda a asentar lo aprendido y a hacernos más conscientes de ello[2].

Este proceso de humanización de la persona entera ha de hacerse en comunidad. Alumnado, equipo educativo y familias, los agentes del proyecto educativo de EGIBIDE, hemos de ser también los componentes de su comunidad de referencia. Presentes en distintos campus, con distintas tareas y funciones, tenemos el convencimiento de que así se educa de manera más efectiva. Seremos **comunidad educativa** si tenemos un sentimiento de pertenencia que haga que las personas sintamos EGIBIDE, no solo como un lugar para trabajar o estudiar, sino un lugar para ser más nosotros mismos y crecer juntos como personas, como ciudadanos y ciudadanas y también, es posible, como creyentes[3].

Sintetizamos nuestro **estilo educativo** en cuatro rasgos característicos:

1. **Educación personalizada,** que considera a cada persona y su dignidad en la diversidad, y que es asimismo educación **orientadora.**
   a. Acompañamos y atendemos de manera cercana y personalizada a los alumnos-as en todas las dimensiones de su desarrollo, mediante una acción tutorial que traspasa los límites del aula y del grupo.
   b. Favorecemos el máximo desarrollo posible de cada persona, motivando para el aprendizaje y el crecimiento personal y buscando la cooperación y participación de los alumnos-as en su propia formación.
   c. Atendemos a la diversidad de los alumnos-as partiendo de sus circunstancias personales, familiares y sociales, capacidades, intereses y ritmos de aprendizaje.

[2] *Carácter Propio EGIBIDE,* nº 18.

[3] *Carácter Propio EGIBIDE,* nº 14.

e. Diziplinarteko jarduera akademikoa sustatzen dugu, eta irakasle-taldearen jardun koherentea, helburu pedagogiko komunekin.

f. Banan-banako orientabide akademikoa eta profesionala eskaintzen diegu ikasleei.

g. Banan-banako ebaluazioa egiten dugu, ikasle bakoitzaren hobekuntza-plan batekin eta norberaren ikaskuntza-erritmoa aintzat hartuta.

2. **Hezkuntza eraldatzailea,** gaitasun eta bikaintasun profesionala garatzea helburu duena, eta gizaki askeak, helduak, kritikoak, sortzaileak, ekintzaileak sortzen dituena, aldaketa onartzeko eta sustatzeko gai diren gizakiak, etorkizunari begira jarduten direnak.

a. Jarrera berritzaileak eta ekintzaile-sena sustatzen ditugu, ikasleen sormena eta ekimena garatuz.

b. Esfortzuaren kultura, lanaren etika eta gauzak ondo egitea bultzatzen dugu.

c. Ezagutzak eta gaitasunak eguneratzen laguntzen diegu, gizaki bakoitza bere ikaskuntzaren partaide bihurtuz bizitzan zehar.

d. Ikasleen eleaniztasuna eta nazioartean jarduteko gaitasuna bultzatzen ditugu. Horretarako, egonaldiak (hizkuntzak ikastekoak, kulturalak, sozialak, erlijiosoak...) antolatzen ditugu atzerrian.

e. Ikasteko eta lan egiteko metodo eta ohitura eraginkorrak sustatzen ditugu.

f. Gehiago arduratzen gaitu ikasketen intentsitateak eta sakontasunak haien hedadurak baino.

g. Ikasleek berrikuntza pedagogikoko proiektuetan parte hartzea sustatzen dugu.

3. **Kristau hezkuntza humanista,** gizartea gizatiarragoa bihurtzeko eta mundu berri bat eraikitzeko behar diren gizon eta emakume berrien utopian sinetsiz.

a. Gizakiaren eta munduaren ikuspegi kristaua eskaintzen dugu.

b. Espiritualtasuna jorratzen dugu, transzendentziari ateak ireki diezazkion.

c. Fedearen, kulturaren eta bizitzaren arteko lotura sustatzen dugu.

d. Kristau jarduna eta konpromisoa libreki garatzeko aukera eskaintzen dugu, fedearen bizipen pertsonal eta kolektiboaren bidez.

e. Jesu Kristoren Ebanjelioaren iragarpen esplizitua sustatzen dugu.

f. Elkartasun- eta laguntza-jarduera kulturalak bultzatzen ditugu, munduaren gure kristau ikuspegiaren adierazle.

d. Promovemos la autonomía que hace posible su participación en la realización, organización y programación de actividades; y perseguimos la apertura y disposición receptiva a lo que provenga de la comunidad educativa en su conjunto.

e. Desarrollamos una actividad académica interdisciplinar y una actuación coherente del equipo de educadores con objetivos educativos comunes.

f. Ofrecemos una orientación académica y profesional individualizada.

g. Realizamos una evaluación personalizada, desarrollando un plan de mejora personal de cada alumno/a, respetando su ritmo de aprendizaje.

2. **Educación transformadora,** encaminada hacia el desarrollo de la competencia y la excelencia profesional, y que forma personas libres, maduras, críticas, creativas, emprendedoras, capaces de vivir en el cambio, de promoverlo y de actuar con sentido de futuro.

a. Fomentamos los comportamientos innovadores y emprendedores, desarrollando la creatividad y el sentido de iniciativa en el alumnado.

b. Promovemos la cultura del esfuerzo, la ética del trabajo y el valor de las cosas bien hechas.

c. Favorecemos la actualización de los conocimientos y las competencias mediante la implicación de cada persona en el propio aprendizaje a lo largo de la vida.

d. Desarrollamos el plurilingüismo y la capacidad de internacionalización en el alumnado facilitando intercambios en el extranjero que persigan objetivos educativos lingüísticos, culturales, sociales y religiosos.

e. Fomentamos la adquisición del método y sistemática de estudio y de hábitos de estudio y trabajo eficaces para cada persona.

f. Ponemos mayor interés en la intensidad y profundidad de los estudios que en la extensión de los mismos.

g. Impulsamos la participación de los alumnos-as en proyectos de innovación pedagógica.

3. **Educación humanista cristiana,** que humaniza el mundo y cree en la utopía de llegar a ser hombres y mujeres nuevos para la construcción de un mundo nuevo.

a. Ofrecemos una visión cristiana de la persona y del mundo.

b. Cultivamos la interioridad que abre a la Trascendencia.

c. Desarrollamos el diálogo entre la fe, la cultura y la vida.

d. Posibilitamos la libre maduración de la experiencia y el compromiso cristiano, a través de la vivencia y expresión personal y grupal de la fe.

e. Promovemos el anuncio explícito del Evangelio de Jesucristo.

4. **Munduan eta gizartean jarduteko hezkuntza, integratzailea eta kultura artekoa,** inguruarekin bat egiten duena, hezkuntza-komunitateko partaide guztiak kohesionatzen eta biltzen dituena, ikasleen trebakuntza-prozesuko hezitzaile bihurtuz.
   a. Arreta berezia eskaintzen diegu ikasleen alderdi komunitarioei; besteekin eta besteentzat izan eta bizi behar dutela irakasten diegu.
   b. Solidario izaten irakasten diegu, arduraz, austeritatez eta jasangarritasunez jardun daitezen.
   c. Aukera-berdintasuna bermatzen dugu, eta etengabeko trebakuntzako prozesuetan parte hartzeko aukera.
   d. Gure lurra, hizkuntza, kultura eta tradizioak balioesten irakasten diegu ikasleei, gizakiaren alderdi unibertsalaz ahaztu gabe.
   e. Hainbat etnia eta kulturatako jendearen arteko bizikidetza sustatzen dugu, ziur baikara aberasgarri zaiela.
   f. Justizia eta bakearekiko borondatezko konpromisoa sustatzen dugu.
   g. Eskolaz kanpoko zenbait jarduera eskaintzen ditugu, ikasleen beharrak asetzeko, haien nortasunaren garapen orekatua eta osoa bultzatzeko.

Gasteizen, 2013ko abenduaren 11n

   f. Fomentamos experiencias y actividades culturales de solidaridad o ayuda humana, realizadas como expresión de un testimonio cristiano en el mundo.

4. **Educación para el mundo, inclusiva e intercultural**, en comunidad, que interactúa con el entorno y que integra cohesionadamente a todos los miembros de la Comunidad educativa como educadores que intervienen en el proceso formativo del alumnado.
   a. Atendemos especialmente los aspectos comunitarios de los alumnos-as, buscando que lleguen a ser y vivir con y para los demás.
   b. Impulsamos una educación solidaria, generadora de actitudes y comportamientos responsables, austeros y sostenibles.
   c. Garantizamos la igualdad de oportunidades y la participación en los procesos de aprendizaje permanente.
   d. Promovemos la valoración por parte de los alumnos-as, de nuestra tierra, tradición, lengua y cultura, sin olvidar nunca el servicio a la causa universal del ser humano.
   e. Ayudamos a convivir entre personas de etnias y culturas diversas de una manera más creativa y enriquecedora.
   f. Favorecemos el libre compromiso con la justicia y la paz.
   g. Ofrecemos actividades extraescolares, que ayuden a integrar las necesidades de alumnos-as, promoviendo el desarrollo equilibrado e integral de su personalidad.

Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2013